

2018-06-30eko HERRI BATZARREKO AKTA


2018ko ekainaren 30ean, larunbata, 19:00etan, Itsasoko Elizako korupean aurtengo 2. Herri Batzarra burutu da, honako aztergaiak izan dituelarik:

- **2018ko martxoko Batzarraz geroztik udalak emandako pausak**
 - Martxoaren 27ko desanexioren aldeko sententzia eta geroztik Estatuko abokatuak jarritako errekursoaren egoera:
 - Sententziak dio eskumena Aldundiarena dela, eta ez dela jerarkia kontua, beraz Estatuko arauak ez duela eraginik gure kasuan.
 - Errekurtsoak dio nahiz eta eskumena Aldundiarena izan, araudia egokitu egin behar duela Estatukoa betetzeko.
 - Inskripzioa lortu bitartean, Ezkiorekin konpartituko dugu Bake Epailea. Itziar Etxezarretak jarraituko du
 - Alegiko obraren ondoren, garbitzailearen kontratazio luzapena
 - Astean bi egunez egingo da Alegiko komunitateko garbiketara, astean behin frontoiko zaborrik handienak eta zabor ontziak hustuko dira.
 - Garbigunean txoko edo lokaltxo bat prestatuko da garbiketarako behar diren tresna eta produktuentzat (bitartean Elkarteko eskailerapean gordeko dira)
 - ITE-EIT, Etxeetako Ikuskaritza Teknikoa
 - Dekretu berria datozen asteetan aterako da
 - Ur Kontsoltzioak ur zikinak bideratzeko proiektua
 - Herriko ur zikinak kanalizatzeko proiektua egiten ari da eta Mandubi eta Mandubizarrekoentzat eskaera egin da.
 - Seinalitika aldaketa errepideetan
 - Maiatzean egin ziren, N-1ean izan ezik. Hauetan panel osoa aldatu behar denez, aurrerago aldatuko dituzte.
 - 1965-2016 epean Itsasori dagokion udal artxiboaren bikoizketa

Dokumentazio ofiziala Ezkion geratuko da eta, diru-laguntza bat medio, artxiboaren kopia egiten ari dira Itsasora ekartzeko.
 - Hilerriko iturria
 - Hilerriko sarreran, ezkerreko txabolaren paretan jarri da.
 - Altzigarragako bide konponketa
 - Aurtengo neguan hondatutakoa konpontzeko *todouno* kamiokada batzuk bota dira eta hiru lekutan hormigoizko erretenak atera dira.
 - Leader deialdira aurkeztutako proiektua: Ostatu eraikinaren teilatua eta ganbara.
 - Leader-era aurkeztu den proiektuak Ostatuko eraikinaren teilatua eta ganbaraz gain, ataria eta kanpoaldeko ingurua ere aurreikusten ditu.
- **Hurrengo Batzarra egin artekoak (azarorako):**
 - Udaletxeko kanpoko obra:
 - . Sarrera irisgarri egingo da.
 - . herriko sarrerako espaloia kenduko da.
 - . aparkalekuen gunea margotuko da.



- Ariola eta Goitiko bideak hormigoitzea eta konpontzea
 - Aurrekontuak: Ariola: 45.070,98€/diru-laguntza 35.000€
 - Goitti: aurrekontua 6.388,36€
- Alegiako barne errepidea oinezkoen segurtasunerako egokitzeko alegiarrekin bilera uztailean
 - Alegiko festen ondoren bilera egingo da.
- Herriari buruzko panel informatiboak diseinatu eta kokatzea
 - 2018ko Landaola proiektua: ibilbideak markatu, informazio panelak berri, San Lorentzon iturria jarri,... Aurrekontua 17.377,83€/diru-laguntza 11.295,60€
- Ikastaroen eskaintza:
 - 2018ko urritik aurrera emateko proposatzen diren ikastaroak hauek dira: euskara, pilates, adinez nagusi eta autonomo direnentzat ariketa fisiko-psikiko-emozionalaren lanketa, zeramika, gantxilloa, energia aurrezteko formakuntza, hipika, tertulia literarioak, mendi irteerak, frontenisa, ingelesa...
 - Eskaintza egun batzuk barru zabalduko da eta uztailearen bukaerarako dauden eskaerak edota proposamen berriak jasoko dira.
- **Ariketa fisiko-psikiko-emozionala egiteko proposamena**
 - Biztanle helduei eta autonomoei zuzendua.
 - Ariketa ezberdinen bitartez sozializatuz gaitasun ezberdinak lantzea du helburu.
 - Neurriera pentsatutako ariketa fisikoak, memoria lanketak, generazioen arteko harremanak, ... landuz osatuko litzateke.
 - Gaia tratatzeko bilera: uztaileak 4, Udaletxean, 16:00etan.
- **Zaborren kudeaketa hobetzeko ideien lanketa**
 - Maiatzeko emaitzen grafikoa ikusirik eta ekonomikoki eta ekologikoki kalterako direla jakinik, taldea jarrita, hobetzeko ideiak jaso nahi dira.



JASOTAKO IDEIAK

- Herriko datuekin informazioa zabaldu
- Hondakinen kudeaketaren inguruko formazioa nahi den galdetu
- Txartelak berri eta dagokien etxe eta herrietan banatu (Itsason eta Gabirian)
- 3 hilabeteren ondoren, datuak aztertu eta ondorioak atera
- Errefuxa ontzia txikiagoa jarri eta ahoa ere txikiagoa izan dezala
- Belarra botatzeko lekua prestatu (Alegin eta Itsason)
- Pixoihalentzat eta pilentzat edukiontziak jarri
- Konpostagune komunitarioa jarri Alegin
- Edukiontzi bakoitza zertarako den zehaztuta jarri eta informazioa zabaldu
- Edukiontziak desberdindu eta herri bakoitzak bereak izan

- **Euskaraldia ekimenaren aurkezpena**

- HELBURUA: Euskararen erabileraren alde eta hizkuntza ohituretan inertziak apurtzeko urrats praktikoak ematea da, egunerokoan eragiteko eta guztion erantzukizun partekatuari esker
- 11egun euskaraz: azaroaren 23tik abenduaren 3ra
- Ekimenean parte hartu nahi duenak izena eman beharko du (irailean)
- Gainera, rol jakin bat aukeratu du: AHOBIZI edo BELARRIPREST

